

«Oso perspektiba zabala zeukan Arzalluzek, eta urrutira ikusten zuen»

Joseba Egibar • EAJren GBBko presidentea

Xabier Arzalluzen herri ikuspegia nabarmendu du Joseba Egibarrek, eta EAJren belaunaldiak lotzeko egindako lanari ere balio handia eman dio.

Enekoitz Esnaola

Xabier Arzalluzen ildo berekoa izan da Joseba Egibar (Andoain, Gipuzkoa, 1959) EAJren GBBko presidentea. Harreman handia zeukaten duela 40 bat urtetik.

Noiztik ezagutzen zenuen Xabier Arzalluz?

Xabierren hitzaldiak, mitinak eta beste segitzen genituen guk, baina 1979an egin nuen lehen ageriraldi publikoa harekin, Azpeitian, Gernikako Estatuaren aldeko kanpainan. Neure lehen mitina izan zen, eta haren aurretik mintzatu nintzen. Alemanian telebista kate bat haren atzetik zebilen erreportaje bat egiten. Estatu-tua onartu zenetik harreman iraunkorra izan genuen.

Hasieratik izan al zinen Arzalluzen ildo politikoa berekoa?

Arzalluzek EAJko aurreko belaunaldikoak ezagutu zituen, eta esaten zuen Juan Auriagerrak ez zituela gustuko aho bezela hartutako erabakiak eta nahi izaten zuela aurretik eztabaidatu. Arzalluz ere horrelakoa zen; ezartzen zuen formula hori, eta, berea de-

fenditzez gain, besteen irizpideak ezagutzea nahi izan zuen. Harekin beti eztabaidatu izan du.

Baina ildoak, beti antzekoak?

Ildo politikoa nagusia beti berdintua izan dugu. Hark beste esperientzia bat zeukan, beste eskarmentu bat. Misio bat zuen alderdi eta herri ikuspegi batetik: alderdi-ko aurreko belaunaldiaren onena hartu eta belaunaldi berriarekin joskera egitea, lotura. EAJrentzat, diktadura garaiko 40 urteak gogorak izan ziren, Jaurilaritza erbestean izan zen... Alderdia berriro plazara aterazenean, 1977-1979 aldean, inork ez zuen aldeko apusturik egiten, EAJ desagertu egingo zelakoan, baina Xabierrek lortu zuen belaunaldiak uzartzea eta alderdia aurrera ateratzea. EAJk arrakasta izan zuen.

ETAren ere izan zuen garai hartan harremana Arzalluzekin.

ETAren belaunaldi berriarekin ere egin zuen topo. Kontrastatu eta eztabaidatu zuen haiekin.

1980ko hamarkadaren erdialdean, EAJren krisia. Zer zioen?

Zatiketak asko markatu zuen alderdia. Gogoan dut hausturaren

ondoren Xabierrek nola esaten zuen EAren gobernu akordioak egin behar zirela lehenbailehen, familia politikoa bereko kideak ginelako, fiabardurak fiabardura, baina Xabierrek aipatzen zuen abertzaletasuna ez zegoela fiabarduratarako. Filosofia hori zeukan. Hari buruzko azken dokumentalean zioen gerta legikuguen okerrena izan zela zatiketeta.

Nola bizi izan zituen Lizarra-Garaziko Akordioa eta haustura?

Apustua egin beharra zegoela aipatzen zuen, konbentzitu behar genuela ETA armak uzteko eta ikusteko politika dela bidea. Saikera hartaroko, Gorka Agirre, Juan Mari Ollora eta hirurok ibili ginen, EBBko buru Xabier zela. 1998an lortu genuen akordioa; herrian ilusio handia sortu zen, baina ETAK hautsi egin zuen su-etena, 1999an. Porrota ekarri zuen; ez EAJrentzat elektoraliki, gora egin genuelako – eta EHK Eusko Legebiltzarrean ordezkaritzaren erdia galdu zuen –, baizik eta porrota izan zen herri perspektibaren aldetik. Ezker abertzaleak orduan ez zuen egin soilik



Joseba Egibar eta Xabier Arzalluz, 2009an, Mutrikan. JUAN HERRERO/ EFE

bide politikoen eta demokratikoen aldeko apustua. Arzalluzek esaten zuen hanka sartzeko bat zela herri ikuspegiaren aldetik, baina etorriko zela berriro unea apustu hori egiteko, eta ezker abertzaleak egin zuen oraintxe dela bederatzigarren urte hori. Gauza asko ikusia zelako Alemanian eta beste toki batzuetan, oso perspektiba zabala zeukan Xabierrek, eta igual, motzean arituta-edo, guk ez dugu urrutira ikusten, baina hark urrutira ikusten zuen.

Arzalluzek 2004. urtean utzi zuen EAJren EBBko presidentekargua. Pena al zeukan kargua zuk eskuratu ez izanaz?

Apustua egin zuen, bat [Joseba Egibar] bestea [Josu Jon Imaz] baino egokiagoa ikusten zuela esanez. EAJren batzarrak erabaki beharrekoa erabaki zuen, baina Xabier ez zen erreminduta gelditu, ezta neu ere. Guk bagenekien alderdia tresna bat dela herrigintzaren. Denborak erakutsi ohi du gero bakoitzak egindakoa.

Azkenaldian zer harreman izan duzu Arzalluzekin?

Tarteka-tarteka egoten ginen, bazkari baten inguruan. Hitz egiten genuen jaiotze tasaz, migrazioan Alemaniak daraman politikak «inteligenteaz», pentsioez... Gai horiek denak kontrolpean zituen. Orain urte batzuk Podemosen bilakaeraz esan zigun komunista direla haiek eta komunista berruak daramatela zatiketaren hazia; ikusi zer ari zaien gertatzen. Beti zen interesgarria Arzalluzekin hitz egitea.

Euskal Herriaz baikor al zen?

Kataluniaz esaten zuen azkenean bidea aurkituko dutela. Euskal Herriari buruz, pertsonen arteko konfiantza erein beharra nabarmen zuten. Oso itxaropenitsu ikusten zuen Nafarroako egoera, eta zaindu egin behar zela zeukan. Beste zutabe nagusi bat zeukan: euskara zabaltzen den neurrian abertzaletasunak aurrera egingo duela. Nik harekin beti euskaraz egin dut politikak.